


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Puri Arrondo Odriozola

*Bergara,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea



Biografia



Zubieta kalean jaioa, familia abertzale batean. Hiru senidetan txikiena. Kontxita Maiztegiren eskolan ibili zen, eta ondoren urtebete egin zuen Frantzian, au-pair moduan, frantsesa ikasten. 17 urterekin Textil Vicente Aranzabal lantegian hasi zen lanean. 1967 urte inguruan losu Oregirekin euskara ikasten ibili zen, eta 1969 urtetik 1974 urte alderarte Juventudes Parroquiales taldean aritu zen, kultur ekintzak antolatzen. Elkarrizketaren zati bat Karmen Zelaia lagunarekin batera egin genion.

Zintak

BER-372

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-02-16
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

BER-373

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-02-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Azkar bataiatzera linbora ez joateko

- **Erref:** BER-372/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Zubieta kaleko familiako etxean jaio zen. Zilbor-hestea lepoan zuela jaio zen

eta gurasoek, beldurrez, nahiz eta elurtea zegoen, bataiatzera eraman zuten, Puri hil ezkeren linboak geratu ez zedin.

2. Gerra zela eta, gurasoak berandu ezkondu ziren

- **Erref:** BER-372/005
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak bergararrak eta euskaldunak. Gerra galdutakoak. Berandu ezkondu ziren, soldaduska, gerra, gerraostea... pasa behar izan zutelako.

3. Etxean beti euskaraz

- **Erref:** BER-372/006
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean ez zuten gerrari buruz hitz egiten baina bazekiten bi bando zeudela. Etxean euskaraz egiten zuten baina kalean gaztelaniaz. Hiru senide dira, urte askoko aldearekin.

4. Kontxita Maiztegi, eskola laikoko maistra

- **Erref:** BER-372/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola laiko batean ikasi zuen, amaren lehengusina bat maistra zela. Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin ikasten zuten. Kultura orokorra, mekanografia, kontabilitatea, frantsesa... ikasi zituzten. Kontxita Maiztegi zen maistra. Hasieran eskolak frontoian ematen zituen eta gero plazan. Nahiz eta eskolak gaztelaniaz izan behar ziren, maistrak ez zuen inor zigortzen euskaraz egiteagatik.

5. Euskara etxerako bakarrik gordetzen zen

- **Erref:** BER-372/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:06:59. **Bukatu:** 00:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Etiket kanpo gaztelaniaz hitz egiten zuten; modan zegoen. Zubietan, auzoan, haurren artean gaztelaniaz jolasten zuten, baina gazteek (Puriren anaiaren kuadrilak, adibidez) euskaraz egiten zuten haien artean, nahiz eta eskolak gaztelaniaz jaso. Haiek euskaraz hazteko aukera izan zuten kalean, baina Puriren belaunaldikoek ez. Hala ere, auzoetan euskara gehiago erabiltzen zen. Kalean, gaztelania ondo ikusia zegoen.

6. Neska eta mutilek goi-mailako ikasketak egiteko aukera

- **Erref:** BER-372/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Hamabost urtera arte ikasi zuen Kontxita Maiztegirekin eta ikasketak bukatuta, Frantziara joan zen urtebetez au-pair bezala lan egitera. Hamazazpi urterekin, Bergarako Textil Vicente Aranzabal lantegian lanean hasi zen. Lanean gazterik hastera zen ohikoena, familiaren behararen arabera. Familia aberatsen alabek goi-mailako ikasketak egiten zituzten. Mutilek normalean Elementalean ikasten zuten, nahiz eta bazegoen goi-mailako ikasketak egiten zituenik ere.

7. Gerra aurreko eta gerrako kontuez ez zen hitz egiten

- **Erref:** BER-372/011
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra aurretik, batzokian antzerkira joaten ziren. Gerra aurreko eta gerrako kontuez ez zen etxean hitz egiten. Aita hil eta gero jakin ditu hainbat kontu.

8. Tindategiko sukaldean milizianoen kantak abesten

- **Erref:** BER-372/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:47. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Tindategiko alabarekin jolasean ibiltzen zenean, haren amak eta amonak euskarazko milizianoen kantzak abesten zituzten arropak lixatzen zituzten bitartean. Hamabi urterekin Arrasateko Euskal Jaira joan zen.

9. Bergarako bigarren kuadrila mistoa

- **Erref:** BER-372/015
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gazteak zirenean, ohikoa ez izan arren, kuadrilla mistoa zuten. Aste Santuko ofizioetan ezagutu zuten elkar eta gero Juventudes Parroquiales taldera joaten hasi ziren. Hauek beti mistoak ziren Bergaran.

10. Bergarako Juventudes Parroquiales I

- **Erref:** BER-372/016
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:17:32. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Begarako Juventudes-eko egoitza Konbenio kaleko etxebizitza bateko 4.solairuan zegoen. Eraikina indiano batek utzi zion herriari. Behean aurrezki-kutxa zegoen, 1.go pisuan kasinoa, 2. pisuan abade bat bizi zen eta 4. pisuan talde ezberdinak elkartzen ziren: Acciøacute;n Catøacute;lica, Juventudes, Pol-Pol... Juventudes, elizaren inguruan sortutako taldea zen.</p>

11. Bergarako Juventudes Parroquiales II

- **Erref:** BER-372/017
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Udalak beti Juventudesezko gazteekin elkarlanean ibiltzen zen. Arratsaldea pasatzeko leku bat zen. Haien aurrekoek ordainpeko dantza antolatzen zuten baina Puriren belaunaldikoek kendu egin zuten. Arlo ezberdinak sortu zituzten, elkarteak denen artean koordinatzeko. Don Pablo abadea haiekin ibiltzen zen eta Don Serafin Pol-Pol elkartekoekin.</p>

12. Juventudes Parroquiales, Acción Católica eta Pol-Pol

- **Erref:** BER-372/018
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Acción Católican sartu zen Tomasita Zabaletaren bitartez, irteerak egiten zituztelako. Juventudes Parroquiales, Acción Católica eta Pol-Polek egoitza elkarbanatu arren, ez zituzten elkarrekin gauzak antolatzen baina hiruretan parte hartzen zuten.</p>

13. Kasinoa aberatsentzat zen

- **Erref:** BER-372/020
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:23:57. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

<p>Bergarako kasinora aberatsak joaten ziren. Emakume aberatsak ez ziren tabernetara joaten baina kasinora bai.</p>

14. Dandatzalekuak

- **Erref:** BER-372/021
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Juventudes-en (Juventudes Parroquiales) partez urtero Don Pablo abadeari opari bat egiten zioten eta inoiz ez zuten arazorik izan berarekin. Batzuk dantzalekura joaten ziren eta beste batzuk mendira. Ariznoa dantzalekua.

15. Lehenengo Olentzeroren irteera; Maria Txantxote

- **Erref:** BER-372/022
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:26:33. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

1969an Juventudes-eko batzordean sartu ziren. Lehenengo Olentzeroa antolatu zuten. Maria Txantxote maistra zen eta berak eta beste batzuek

laguntzen zieten euskalgintzarekin lotutako ekintzak sortzen. Ekintza ugari antolatzen zituzten, ilusio handiarekin

16. Errege bezperako desfilea eta dantza

- **Erref:** BER-372/024
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Urtero estanpak egiten zituzten Pazko eta Errege egunetarako. Angel Lazkano zinegotziak laguntzen zien baimen guztiak eskatzen eta bideratzen. Errege bezperako desfilea Juventudes-ek antolatzen zuen. Dantza egoten zen frontoian.

17. Erramu larunbateko jaialdia Bergaran

- **Erref:** BER-372/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:33:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Erramu eguneko larunbatean, jaialdiak antolatzen zituzten. Pantxoa eta Peiok lehen aldiz jaialdi honetan jo zuen. Musikari eta artisten artean ezikusiak izaten ziren.

18. Disko eta liburu azoka Bergaran

- **Erref:** BER-372/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:33:37. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Bergaran disko eta liburu azoka bat antolatu zuten Juventudes-ekoak eta horretarako, Juan San Martinekin bildu ziren Eibarren. Seminarioan antolatu zuten eta Joxe Azurmendiri sari bat eman zioten.

19. Tabernetan asko kantatzen zen

- **Erref:** BER-372/028
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Garai batean, tabernetan abestu egiten zen, ez zen musika-rik egoten.

20. Gau-eskolak Elementalean

- **Erref:** BER-372/030
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Joxu Oregik euskarazko gau-eskolak ematen zituen Elementalean. Zazpiak aldera izaten ziren klaseak eta hamar bat ikasle ziren taldeko.</p>

21. Grisen atxiloketak

- **Erref:** BER-372/031
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Txabi Etxebarrietaren heriotzaren inguruan egondako istiluak. Grisek Juventudes-eko lau lagun nola atxilotu zituzten kontatzen du. Orduko kuadrilla hori bertan sakabanatu zen.

22. Bergarako Pol-pol elkarte

- **Erref:** BER-372/032
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:41:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Pol-Pol elkarteko giroa euskalduna zen. Urtero Larrun-era egiten zuten irteeran, Ipar euskal Herrira ihes egindakoekin elkartzen ziren.

23. Errege eguneko kabalgatak Bergaran

- **Erref:** BER-373/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Juventudes-ekoek Errege eguneko kabalgatak antolatzen zituzten. Herritarren laguntz jasotzen zuten eta behin zaldi zuri bat utzi zieten. Kabalgataz gain, ekimen erlijiosoetan ez zuten parte hartzen. Gabonetako jaiotzak.

24. Pantxoa eta Peioren lehenengo emanaldia Hegoaldean

- **Erref:** BER-373/012
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:15:34. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Juventudes-eko batzordean zeudela, 1972an, Pantxoa eta Peio Bergarara eraman zituzten. Haien lehenengo kontzertua izan zen Hegoaldean. Urte batzuetara beste batzuk sartu ziren batzordean.

25. 1972ko bertso-jaialdia Bergaran

- **Erref:** BER-373/014
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bergaran 1972an antolatu zen bertso-jaialdi handiaren gogoetak. Iparraldetik asko etorri ziren.

26. Miarritzen galduta

- **Erref:** BER-373/015
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:19:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin Miarritzera egin zuten irteera bat eta batzordekoak galduta ibili ziren, autobusa ezin aurkitu.

27. 70eko musikariak Bergaran

- **Erref:** BER-373/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:21:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Errege eguneko bezperan, Juventudes-ek dantzaldiak antolatzen zituen. Puri eta Karmentxu batzordean egon aurretik, Los Bravos edo Los Mitos bezalako taldeak egon ziren. Batzordean zeudela, Egan taldea eraman zuten. Oskarbi taldea, Gorka Knörr, Benito Lertxundi...

28. Ez Dok Amairu

- **Erref:** BER-373/017
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Ez Dok Amairu taldeari buruz hitz egiten dute.

29. 75.000 pezetako isuna 1975ean

- **Erref:** BER-373/020
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Txiki eta Otaegiren epaiketaren kontra idatzi batzuk banatzen ibili ziren Bergararik eta atxilotuta egon ziren guardia zibilaren koartelean. Bakoitzari 75.000 pesetako isuna ezarri zion poliziak eta etxean zuten idazteko makina konfiskatu zieten. Zati bat ordaindu zuten.

30. Dantza egiteko moduak eta musika aldatu egin ziren

- **Erref:** BER-373/028
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:34:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Juventudes-ekoak astebururo mendira joaten ziren eta Urrexolan zegoen baserri batean egoten ziren. Bueltan, Oñatira, Soraluzera edo inguruko herriren batera joaten ziren dantzara. Ariznoara ez ziren joaten. Dantza egiteko moduak eta musika aldatu egin ziren.

31. Guatekeak

- **Erref:** BER-373/029
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:34:14. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Guatekeak oso gaztetatik egiten zituzten Juventudes-eko lokalean. Nolakoak ziren.

32. Plazako dantzaldietan ligatzeko teknikak

- **Erref:** BER-373/030
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetxoak zirenean, 3 piezako dantza egoten zen plazan eta 3.en piezarako pentsatu behar zuten norekin dantza egin nahi zuten. Ligatzeko moduak. Zertaz hitz egiten zuten mutilekin.

33. Antisorgailuak nola lortu 70. hamarkadan

- **Erref:** BER-373/031
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Sexuaz hitz egitea tabua zen. Fama txarra hartzea oso erraza zen. Antisorgailuak nola lortzen zituzten. Bergaran edo Donostian saltzen zituen farmazia bana zegoen. Hilekoarentzat produktuak.

34. Prakak modan jarri zirenean

- **Erref:** BER-373/032
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Prakak jazten lehenetarikoak izan ziren arren, lanera gona jantzita joan behar zuten.

35. Emakumeak tabernetan

- **Erref:** BER-373/033
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak tabernetara joaten hasi zirenean. Kuadrilan botea jartzen zuten, ez zuten dena mutilek ordaintzen.

36. Elizaren indarra: dena bekatua zen

- **Erref:** BER-373/034
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Garai batean, mutil-laguna soldaduskara joaten zenean, neska ez zen etxetik ateratzen, herrian esango zutenaren beldurrez. Elizaren indarra nolakoa zen. Astero konfesatzen ziren, baina astero gauza bera esaten zuten.

37. Soldaduskatik bueltatu, ezkondu eta haurrak izan

- **Erref:** BER-373/035
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:44:17. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Bikoteak harremantzeko moduan aldatzen hasi ziren Puri eta Karmentxu gazteak zirenean, baina aldaketa oso poliki eman zen. Normalena zen, mutila soldaduskatik bueltatzea, neska-lagunarekin ezkontzea eta berehala haurrak izatea. Puri eta Karmentxuren adinekoak hasi ziren ohitura hori apurtzen, denek lan egiteko aukera izan dutelako.

38. Emakumeak gidatzeko baimena 21 urterekin eta mutilak 18rekin

- **Erref:** BER-373/036
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:47:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai batean, emakumeek lana utzi behar zuten ezkontzen zirenean. Aita edo senarraren baimena behar zuten gauza ezberdinak egiteko. Gidatzeko baimena 21 urterekin atera zuten, mutilek 18rekin ateratzen zutenean.

39. Sección Femeninara joan beharra

- **Erref:** BER-373/037
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:48:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Sección Femenina-ra joan behar zireneko kontuak. Dirua izan ezkerro, edozer lortzeko aukera zegoen.

40. Ernai antzerki taldea; Urretxindorra eta Ameslaria taldeak

- **Erref:** BER-373/038
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:48:35. **Bukatu:** 00:50:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bergarako Ernai antzerki-taldearen euskarazko emanaldiak. Urretxindorra eta Ameslariak taldeak.

41. Bergara, euskararen erreferente

- **Erref:** BER-373/042
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:54:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Bergarako UNED-en euskarazko tituluak lortzeko ikastaroak antolatzen ziren eta kanpotik jende asko heltzen zen autobusetan. Euskara leku guztietan entzuten zen.

42. Euskararen erabileraren aldaketak

- **Erref:** BER-373/045
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 00:57:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen erabileraren iritziak gazteak zirenean, seme-alabak izan zituztenean eta gaur egun. Mugikorrek gaztelan kontsumitzen dute haur eta gazteek.

43. Franco hil zenean, politizazioak jendea sakabanatu zuen

- **Erref:** BER-373/047
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 01:00:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Juventudes-en parte-hartu izanaren balorazioa. Oso eskola ona izan zen bizitzerako. Franco hil ostean, gauzak aldatzeko ilusio handia zuten denek baina politizazioak jende asko sakabanatu zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com